

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MAKINAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK MANTENTZEA ETA KONPONTZEA	Iraupena	70
		Espezifikoa	
Kodea	UF0380		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Abeltzaintzako ustiategiaren instalazioak, makinak, materiala eta ekipamenduak kudeatzea.	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Giza baliabideen kudeaketako ekipamenduak eta makinak kudeatzeko dokumentazio teknikoa.	Iraupena	50

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0536\_3 ABELTZAINZAKO USTIATEGIKO INSTALAZIOAK, MAKINAK, MATERIALA ETA EKIPAMENDUAK KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hondakinen ezabaketa egoki baten eta azpiproduktuen aprobetxamenduaren arabera eta premien arabera programatutako azienta-instalazioen prestaketarako, garbiketarako, desinfekziorako, intsektu-garbiketarako, arratoi-garbiketarako, egokitzapenerako eta mantentze-laneko eragiketarako kontrolatzea.

EI1.1 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean: biltzen dituen gailu guztien eta instalazioen erabilera eta funtzionamendua kontrolatzea.

EI1.2 Animaliak gela edo instalazio batean sartu aurretik gauzatu behar diren jardunak zehaztea.

EI1.3 Elektrizitate-, ur-, aireztapen-, berokuntza- eta klimatizazio-instalazioen osagaiak eta horiek mantentzeko modua atzematea.

EI1.4 Garbiketako, desinfekzioko, intsektu-garbiketako, arratoi-garbiketako eta egokitzapenerako eragiketa bakoitzerako ekipamendu eta produktu egokiak eta horien erabilera-baldintzak identifikatzea eta zerrendatzea.

EI1.5 Ustiategiko instalazioetan eta horien erabileran hartu beharreko laneko arriskuak prebenitzeko neurriak identifikatzea.

EI1.6 Ustiategian erabilitako instalazioek, makinak eta ekipamenduen eduki behar dituzten baldintza higienikoak eta segurtasun pertsonaleko baldintzak atzematea, eta horien erabilera egokirako behar diren neurriak zehaztea.

EI1.7 Ustiategiko instalazioen, makinaren eta ekipamenduen funtzionamenduen ingurumenaren gainean dituen eragin-faktoreak identifikatzea.

EI1.8 Instalazioetako eta makinaren eta ekipamenduen erabilerako arrisku-faktore eta -egoera ohikoenak identifikatzea; horien arrazoiak aztertzea, eta horien ondorioak ondorioztatzea.

EI1.9 Behar bezala identifikatutako abeltzaintzako instalazio baten kasu eta/edo adibide praktiko batean:

- Horren mantentze-plan bat ezartzea.
- Horren mantentze-lanak nola egiten diren kontrolatzea.
- Horien kokapen eta irisgarritasun egokia berrikustea.
- Azienta kokatzen den gela desberdinak berrikustea, baita atari irekikoak nahiz itxiak, honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatuz: azientarentzako erosotasun eta babes nahikoa, kokapen ona.
- Elektrizitateko eta ur-hornidurako instalazioak eta azientaren zainza-sistemak gainbegiratzea behar den maiztasunarekin.
- Instalazioetan eta biltegietan aireztapen-, berokuntza- eta klimatizazio-baldintzak behar direnak direla gainbegiratzea.
- Sortutako hondakinak eta azpiproduktuak ateratzerakoan eta ezabatzerakoan gauzatzen diren jardunak gainbegiratzea.
- Aurreko lanak laneko arriskuak prebenitzeko arauak betez egiten direla kontrolatzea, kontsumitzaileen osasuna bermatzen duten irizpideekin, eta ezarritako osasun-neurriekin; ez-betetzeko kasuan, egoera zuzentzeko beharrezko argibideak ematea.

EI1.10 Behar bezala identifikatutako abeltzaintzako instalazio baten kasu eta/edo adibide praktiko batean:

- Instalazioen, makinaren, ekipamenduen, lanabesen eta eremuen garbiketarako, desinfekziorako, intsektu-garbiketarako eta arratoi-garbiketarako planaren egokitze zuzena programatzea eta kontrolatzea.
- Garbiketako, desinfekzioko, intsektu-garbiketako eta arratoi-garbiketako ekipamenduen prestaketa, maneiua eta aplikazioa kontrolatzea.

A2: Abeltzaintzako ustiategiko makinaren, materialaren eta ekipamenduen (lanabesak eta erremintak) erabilerako, oinarriko konponketarako eta egokitzapen soilerako mantentze-lanak programatzea.

EI2.1 Dokumentazio teknikoa eta bestelako informazio-iturri erabilgarriak identifikatzea eta aztertzea, makinek, materialak eta ekipamenduen izan ditzaketen matxuren edo akatsen irismena zehaztearren.

EI2.2 Makinen, instalazioen eta ekipamenduen mantentze-plan baten zatiak deskribatzea.

EI2.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean: makinak erabiltzeko egutegia eta irizpide objektiboak lantzea ezarritako produkzio-programaren arabera.

EI2.4 Landutako mantentze-programaren arabera, ekipamenduak eta makinak kontrolatzeko behar diren lan-fitxak eta -parteak zerrendatzea.

EI2.5 Ustiatetik makinen eta ekipamenduen mantentze-lan nagusiak eta horien maiztasuna zehaztea, mantentze-programaren jarraibide eta argibide teknikoak barnean hartuz.

EI2.6 Espezifikazio teknikoetako nahiz erabilera-espezifikazioetako dagokienez behar bezala zehaztutako makina edo ekipamendu baten kasu praktiko batean:

- Dokumentazio teknikoa eta bestelako informazio-iturri erabilgarriak ordenatzea, eguneratzea eta aztertzea, makinek, materialak eta ekipamenduek izan ditzaketen matxuren edo akatsen irismena zehaztearen.
- Eragiketen mantentze- eta erregistro-programa bat lantzea, honako hauek kontuan hartuta: fabrikatzailearen adierazpenak, makinaren karga eta lan-mota, gorabeherak, desgasteak eta izandako matxurak.
- Mantentze-programa gauzatzeko inplementuen edo sargaien, ordeko piezen eta materialen premiak planifikatzea.
- Makinen eta ekipamenduen (koipeztatzea, garbiketak, olio- eta iragazki-aldaketak, besteak beste) epe laburreko eta ertaineko mantentze-plan prebentiboa lantzea (lehen mailakoa) lan-metodoak eta lanaren faseen antolamendua kontuan hartuta eta lan-kostuak eta -denborak optimizatzen saiatuz.
- Makinak erabiltzeko egutegi bat eta irizpide objektiboak lantzea.
- Lan-fitxak eta -parteak lantzea funtzionamendu-denborak, kontsumoak eta izandako etenaldiak eta horien arrazoiak adieraziz, ekipamenduak eta makinak kontrolatzeko landutako mantentze-programaren arabera.

A3: Abeltzaintzako makinen, instalazioen eta ekipamenduen erabilera egokia dela kontrolatzea, erabilera txarrak eragindako kalteak saihesteko.

EI3.1 Ekipamenduen erregulazio- eta kontrol-gailuak deskribatzea.

EI3.2 Ekipamendu baten funtzionamenduaren kontrolerako parametro teknikoak zerrendatzea, baita egin beharreko lanaren eta ekipamenduaren ezaugarrien arabera balio zuzenak ere.

EI3.3 Ekipamenduen ezohiko funtzionamenduak eragiten dituzten arrazoiak aztertzea, hala nola erabilera okerra, erregulazio arduragabea, mantentze desegokia, desgastea, zaharkitapena nahiz beste batzuk, izan ditzaketen konponbideak adieraziz.

EI3.4 Lanaren funtzionamendu- eta emaitza-maila onena balioestea.

EI3.5 Makinen eta ekipamenduen erabilera zuzenerako irizpide objektiboak azaltzea, erabilera-planen eta -eskuliburuen arabera.

EI3.6 Makinen, ekipamenduen eta instalazioen maneio laneko arriskuak prebenitzeko arauak deskribatzea.

EI3.7 Makinen, instalazioaren edo ekipamenduaren erabilera onaren kontroleko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Makinen, instalazioaren edo ekipamenduaren egoera eta prestaketa egokia egiaztatzea erabili aurretik.
- Ekipamenduen funtzioen eragintza-prozesuan fabrikatzailearen argibideei jarraitzen zaiela kontrolatzea.
- Erabilera abeltzaintzako makinen, instalazioaren edo ekipamenduaren ezaugarrientzat eta egiten den lanarentzat egokia dela kontrolatzea.
- Istripuen kasuan, oinarritzako asistentzia sanitarioko teknikak eta lehen laguntzak berehala aplikatzea.
- Makinen eta ekipamenduen lan-gaitasunak, errendimendua era eraginkortasuna kalkulatzeko, euskarri informatikoen laguntzarekin, beharrezkotzat jotzen bada.
- Eguneroko lan-parteei euskarri informatikoan erregistratzea, funtzionamendu-denborak, kontsumoak eta izandako geldialdiak eta horien arrazoiak adieraziz.
- Eragiketa guztiak laneko arriskuak prebenitzeko arauak betez egiten direla kontrolatzea; ez-betetzeen kasuan, egoera zuzentzeko beharrezko argibideak ematen dira.
- Makinen eta ekipamenduen erabilera zuzenak ingurune naturalaren mantentzean duen garrantziari buruz kontzientziatzea.

A4: Abeltzaintzako ustiatetik makinen, materialaren eta ekipamenduen (lanabesak eta erremintak) erabilera, oinarritzako konponketarako eta egokitzapen soilerako mantentze-lanak kontrolatzea.

EI4.1 Izandako matxurak eta langile kualifikatuak behar dituzten konponketa- eta mantentze-lanak identifikatzea.

EI4.2 Lehen mailako mantentze-lanak eta oinarritzako konponketak egiteko behar diren lanabesak eta erremintak atzematea.

EI4.3 Makinetako eta instalazioetako mantentze-lan nagusiak eta horien maiztasuna deskribatzea, eskatutako argibide teknikoak kontuan hartuta.

EI4.4 Abeltzaintzako ekipamenduen mantentze-lanean erabilitako inplementuen, ordeko piezen eta materialen ezaugarri garrantzitsuenak deskribatzea.

EI4.5 Makinen, ekipamenduen eta instalazioen mantentze-lanen laneko arriskuak prebenitzeko arauak deskribatzea.

EI4.6 Mantentze-lanetan jarraitu behar diren baldintzak eta prozedurak definitzea, hondakinen tratamendurako laneko arriskuak prebenitzeko arauen aplikazio zuzena egite aldera, eta ingurumena babestuz.

EI4.7 Behar bezala definitutako abeltzaintzako enpresa bateko instalazio, makina edo ekipamendu baten kasu praktiko batean:

- Mantentze-lanak eta horien maiztasuna zehaztea.
- Ustiatetik makinen, materialaren eta ekipamenduen (lanabesak eta erremintak) berrikuste-eragiketarako, aldizkako mantentzea, oinarritzako konponketak, matxuratutako elementuen edo piezen ordezkapena, eta doikuntza kontrolatzea ezarritako denboran, baliabideekin eta moduan egin daitezkeen, segurtasun-neurri egokiekin, eragiketa soilekin, hala badagokio, ordeko pieza egokiekin eta argibide espezifikoei jarraituz, eskuliburuetan eta/edo ezarritako protokoloetan adierazitako prozedurekin eta aldizkakotasunarekin.

- Egindako mantentze-lanen erregistroa eta ordeko piezen eta bestelako mantentze-materialen erosketak kudeatzea.
- Matxuratutako elementuak eta piezak material egokiarekin eta lan-prozedura eta segurtasun-neurri egokiei jarraikiz ordezkatzeko direla egiaztatzea.
- Ekipamenduen eta instalazioen funtzionamendu egokia egiaztatzea mantentze-lana egin ondoren, eta, beharrezkoa izanez gero, ezarritako homologazio-irizpideei erantzuten diela egiaztatzen da, azken kontrol bat eginez.
- Makinak gainbegiratzea, bide publikoan zirkulatu behar dutenean Zirkulazioaren Kodean ezarritakora eta araudi osagarria egokitzen dela egiaztatuz.
- Barnean hartutako mantentze-lanak laneko arriskuak prebenitzeko plana eta hondakinen kudeaketako ingurumen-araudia betez egiten direla kontrolatzea; ez-betetzeen kasuan, egoera zuzentzeko beharrezko neurriak hartzea.
- Mantentze-kostuak kalkulatzeko.

## Edukiak

### 1. Alojamendurako eta biltegiatzeko instalazioak abeltzaintzako ustiategietan. Mantentzea eta konponketak.

- o Abeltzaintzako ustiategiaren alojamendu- eta instalazio-motak eta -sistemak.
- o Estabulazio-sistemak: abantailak eta eragozpenak.
- o Ukuiluak: orientazioa eta banaketa.
- o Landa-estalpeak.
- o Pentsuak eta bazka biltegiatzeko, prestatzeko eta banatzeko instalazioak.
- o Ukuiluari atxikitako eraikinak belarrak eta bazka kontserbatzeko.
- o Makinak, materiala eta ekipamenduak biltegiatzeko eta kontserbatzeko instalazioak.
- o Sargaia biltegiatzeko instalazioak: produktu toxikoak eta/edo arriskutsuak, erregaia, produktu sukoiak, lubrifikatzaileak...

### 2. Instalazioaren sistema laguntzaileak: ura, elektrizitatea, berokuntza, aireztapen eta klimatizazioa. Mantentzea eta konponketak.

- o Instalazioen ingurumen-eskakizunak: hezetasuna, argiztapena, aireztapena, berotzeko edo hozteko girokuntza.
- o Giroaren kontroleko sistema automatikoak.
- o Ur-instalazioak: andelak, sarea, edontziak, iragazkiak, ponpak, ekipamenduak.
- o Instalazio elektrikoak: behe-tentsioko banaketa, argiztapena, indarra.
- o Motor elektrikoak: oinarriak eta motak, konektatzea eta gelditzea.
- o Kaxa elektrikoak, babesa.
- o Berokuntza-, aireztapen- eta klimatizazio-instalazioak: beroaren transmisioaren oinarriak, banaketa, zirkuituak, bero-trukagailuak.
- o Bestelako instalazio laguntzaileak: potentzia-transmisio mekanikoa, poleak, erreduktoreak, engranajeak, abiadura-aldagailuak, ardatzak.
- o Eguzki-energia eta biogasa.

### 3. Bestelako instalazioak eta/edo ekipamenduak. Mantentzea eta konponketak.

- o Unai elektrikoa: motak.
- o Ariketak egiteko, lanerako eta gizentzeko instalazioak.
- o Itxitura-sistemak eta tipologia.
- o Alanbreak jartzea eta tenkatzea.
- o Sarbideak eta sartzeko ateak.
- o Elikadura solidoaren eta/edo likidoaren prestaketa eta banaketa.
- o Instalazioen erabilera arduratsua.

### 4. Prebentzioa eta arriskuak.

- o Arriskuak.
- o Istripuen eta kalteen prebentzioa instalazioen erabileran.
- o Lehen laguntzak eta larrialdiak.
- o Instalazioak eta norbera babesteko elementuak.
- o Medikamentuen, hondakinen eta azpiproduktuen manipulazioa, biltegiatzea eta erregistroa.
- o Ingurumenaren babesa instalazioen erabileran zehar.

## C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza